

HIRUGARREN HIZKUNTZA ESKAKIZUNA

IDATZIZKO AZTERKETA



ARGIBIDEAK

 **Hizkuntza eskakizun honen azterketak bi zati ditu:**

Idatzizko azterketa

- Idatzizko azterketak bi ariketa ditu: irakurmena eta idazmena. Bi ariketa hauek egiteko **ordubete eta 45 minutu** izango dituzu.
- Irakur itzazu ariketa bakoitzaren aurrean datozen argibideak, eta bertan jartzen duena egizu.
- Idatzizko azterketaren ariketak boligrafoz egin behar dira; saia zaitez letra txukuna egiten.

Ahozko azterketa

- Ahozko azterketan gai bat azalduko diezu aztertzaileei. Egiten hasi baino lehen, bi gai emango dizkizute bat aukeratzeko; ondoren, hamar minutu izango dituzu aukeratutakoa prestatzeko, eta gero beste horrenbeste aztertzaileen aurrean garatzeko.
- Hizkuntza eskakizuna egiaztatu ahal izateko, idatzia eta ahozkoa biak gainditu behar dituzu.

1. IRAKURMENA

- **Teknika:** Cloze-testa
- **Ariketa:**
 - Ondoren 50 hutsuneko testua daukazu.
 - Zenbaki bakoitzak hitza kendu dela adierazten du.
 - Aukera ezazu erantzun-orrian zenbaki bakoitzari dagokion hitza.
 - Ezer egin aurretik artikulua osorik irakurtzea gomendatzen dizugu.

SOJA TRANSGENIKOAREN ARAZOA

Iragarkiak, diru beltza... Soja transgenikoaren merkaturatzea baimentzeko, ___1___ eraginkorragoak suertatzen ari dira biogenetika multinazionalak Brasilen egiten ari diren ahaleginak. Sojaren ___2___, nekazari txikiek eta lur eremu handien jabe diren konpainiek laborantzaren ___3___ gainean defendatzen dituzten ikuspegi kontrajarriak azaleratu ditu. Betiko laborantzak eta naturaren kate genetikoan esku sartzea ___4___ duen laborantza industrialak talka egin dute munduko lau bazterretan eragina izan ___5___ arazoan. Brasilek ___6___ egiten badu, mundu osoa soja transgenikoa irentsi ___7___ izango da. Lurrik Gabekoen Mugimenduak (LGM) eta eliza katolikoaren ___8___ multinazionalak gizartean hedatu nahi dituzten ideiak ___9___ jarri dituzte. Soja transgenikoaren ezarpena nekazari txikien ___10___ izango dela salatu dute, eta baita hazi transgenikoek brasildarren gosea gutxitu ___11___, larriagotu egingo dutela ere. Soja transgenikoa Argentinan ezarri ___12___, milaka nekazari lanik gabe geratu dira eta herritarren goseak ez du atzera egin. Argentinaren kasua erabiltzen ari dira, hain zuzen ere, euren argudioak ___13___ aldera.

Multinazionalak, ___14___, produktu transgenikoak, produktiboagoak ___15___, ingurumenari kalte txikiagoa egiteko eta gosearen arazolari irtenbidea emateko ___16___ direla esaten dute. Brasilek, modernotasunean sartu nahi ___17___, lehenago edo geroago transgenikoen aldeko ___18___ egin beharko du, eta arriskurik ez ___19___ frogatzeko, urteak direla AEBetan produktu transgenikoak kontsumitzen dituztela diote. Baina ez hori bakarrik, ___20___, genetikoki eraldatutako jaki baten kontsumoa mundu osoan zehar ___21___ daiteke, eta

atzetik datozen haziak sartzeko ___22___ eman dezake. Sojaren atzetik arto, gari, ekilore eta kotoiaren hazi transgenikoen globalizazioa etor ___23___ . LGMkoen ustez, produktu transgenikoek ekar ditzaketen ___24___ edo gaitzen gaineko ikerketa sakonik ez da gauzatu oraindik eta, horrexegatik eta ___25___, elikagai horien produkzioa ___26___ utzi beharko litzateke. Brasilgo Apezpikuen Konferentziak iritzi hori ___27___ du, ondorengo belaunaldientzat ingurumena zaindu behar dela uste ___28___ . Ez dute garapena geldiarazi nahi. ___29___, zientziari eta ikerketari tarte handiagoa eman nahi diete, horien ___30___ gizartearen ongizatea da eta. Multinazionalak, dagoeneko, behin ___31___ hazten ez diren eta hurrengo uzta baterako ___32___ diren haziak garatu dituzte. ___33___, nekazariak multinazionalen hazi eta pestiziden menpe erortzeko arrisku bizia daukate.

AEB, Argentina eta Brasil dira munduko soja ___34___ garrantzitsuenak. Argentinak eta AEBek genetikoki moldaturiko haziak ___35___ . Gauzak horrela, soja transgenikoaren arazoari ___36___, Brasilek dauka orain ardura. Europa eta Asiako ___37___ herritan genetikoki eraldatu gabeko produktuak hobesten dituzte eta Brasilek oraindik ere soja naturala ___38___ eta saltzen du. Multinazionalak gogor eragin diote sojaren merkatuari. Brasilek laborategietan ___39___ sojaren hazia onartuko balu, Europako eta Asiako merkatuak, ___40___, multinazionalen menpe geratuko lirateke. Multinazionalen estrategiak AEBen baietza jaso ondoren, lehenik Argentinarako bidea hartu zuen, ___41___, isilpean, haziaren hedapena lortu zuen arte. Argentina ___42___ ari zen krisi ekonomiko eta ___43___ baliatu ziren soja transgenikoa ezartzeko, herriaren gosea ___44___ zuela argudiatuta. Soja gora eta soja behera, goseak bere horretan dirau. Batzuen ___45___, transgenikoak zapalkuntza tresna dira, nekazaria morroi bihurtu nahi dute, lurraren edota hazien jabe izan ez ___46___.

Argentina baino ___47___ larriagoan bizi diren zenbait herritako agintariak globalizazioaren ___48___ duintasunak lekua baduela erakutsi dute. Zimbabwek, Tanzaniak eta Malawik laguntza humanitarioz mozorrotutako soja transgenikoa jasotzeari ___49___ egin diote, Brasilek multinazionalen haziari bai ala ez esatea erabakitzen duen ___50___.

KUKO ARAMENDIA
NABARRA, 2003ko uztaila
EGOKITUA

1.1. ERANTZUN-ORRIA

- **Irakurgaia:** « SOJA TRANSGENIKOAREN ARAZOA »
- **Teknika:** Cloze-testa

- | | | | |
|--|--|--|---|
| 1. a) baizik eta
b) zeren eta
c) gero eta
d) zenbat eta | 2. a) arretak
b) iradokizunak
c) irizpideak
d) auziak | 3. a) ereduaren
b) aztarnaren
c) moduaren
d) iruzkinaren | 4. a) sinesten
b) onesten
c) ahalegintzen
d) txertatzen |
| 5. a) zitekeen
b) dezakeen
c) daitekeen
d) zitezkeen | 6. a) men
b) gainezka
c) kalte
d) errieta | 7. a) premian
b) beharrean
c) saioan
d) bitartean | 8. a) maizterrek
b) jabeek
c) bozgorailuek
d) ordezkariak |
| 9. a) ezbaian
b) eragozpenean
c) esamesean
d) esanguran | 10. a) ordainetan
b) kaltetan
c) ustetan
d) gertaeretan | 11. a) arren
b) beharrean
c) ez ezik
d) heinean | 12. a) zenez geroztik
b) bazen ere
c) izan bazen
d) zelako |
| 13. a) sendotze
b) sendotzeaz
c) sendotzeko
d) sendotzearekin | 14. a) ordea
b) batz bestea
c) halaber
d) orobat | 15. a) direnetz
b) izateko
c) direnerako
d) direnez gero | 16. a) damu
b) gauza
c) funts
d) deus |
| 17. a) izatez
b) izaterako
c) izaki
d) izatekotan | 18. a) urratsa
b) helburua
c) adorea
d) aitzakia | 19. a) dagoen
b) dagoenik
c) dagoela
d) dagoelarik | 20. a) estreinakoz
b) lehenbailehen
c) aurretik
d) behin |
| 21. a) xahutu
b) barreia
c) horni
d) iruditu | 22. a) ardura
b) etekina
c) abagunea
d) harremana | 23. a) liezazkioke
b) litzaiguke
c) liteke
d) lekizkiguke | 24. a) onura
b) maila
c) gakoa
d) biraoa |

- | | | | |
|---|--|--|--|
| 25. a) batik bat
b) behintzat
c) beharbada
d) badaezpada | 26. a) atzekoz aurrera
b) han-hemen
c) non edo non
d) bertan behera | 27. a) sutu
b) malgutu
c) berretsi
d) ondorioztatu | 28. a) balu
b) duela eta
c) baitu
d) duela medio |
| 29. a) Alderantziz
b) Bestetik
c) Alabaina
d) Bide batez | 30. a) baldintza
b) xedea
c) epaia
d) sailkapena | 31. a) adina
b) bezain
c) baino
d) lain | 32. a) antzuak
b) ezkorrak
c) kamutsak
d) liskartsuak |
| 33. a) Badirudi
b) Inola ere
c) Esaterako
d) Hori dela eta | 34. a) ekoizte
b) ekoizle
c) ekoizpen
d) ekoizkin | 35. a) deritze
b) darabiltzate
c) dihardute
d) diraute | 36. a) dagokiolarik
b) dagokionez
c) dagokio eta
d) badagokio ere |
| 37. a) ugari
b) aski
c) hainbat
d) dezente | 38. a) erein
b) aditu
c) baretu
d) kaltetu | 39. a) onduta
b) ondutakoa
c) onduriko
d) onduekiko | 40. a) hala nola
b) bestela
c) edonola
d) ezinbestean |
| 41. a) ahalik eta
b) orduan eta
c) nahiz eta
d) harik eta | 42. a) eratzen
b) pairatzen
c) bermatzen
d) zuzentzen | 43. a) politikoaz
b) politikotzat
c) politikorekin
d) politikoarengan | 44. a) txertatuko
b) estutuko
c) arinduko
d) inguratuko |
| 45. a) gisaz
b) irudiz
c) aburuz
d) aldeaz | 46. a) dezan
b) dadin
c) dakion
d) diezaion | 47. a) eskubide
b) bilakaera
c) kinka
d) eskaera | 48. a) epean
b) giroan
c) aroan
d) gunean |
| 49. a) kontu
b) ihes
c) iruzur
d) muzin | 50. a) arabera
b) bidenabar
c) bakoitzean
d) artean | | |

1.2. ZUZENKETA-ORRIA

- **Irakurgaia:** « SOJA TRANSGENIKOAREN AUZIA »
- **Teknika:** Cloze-testa.
- Irakurmenaren atala gaindituzat emateko, gutxienez 30 itemi erantzun beharko die zuzen azterketariak.

ERANTZUN ZUZENAK

1.	C	2.	D	3.	A	4.	B
5.	B	6.	A	7.	B	8.	D
9.	A	10.	B	11.	B	12.	A

13.	A	14.	A	15.	D	16.	B
17.	D	18.	A	19.	C	20.	A
21.	B	22.	C	23.	C	24.	A

25.	D	26.	D	27.	C	28.	C
29.	A	30.	B	31.	C	32.	A
33.	D	34.	B	35.	B	36.	B

37.	C	38.	A	39.	C	40.	D
41.	D	42.	B	43.	A	44.	C
45.	C	46.	B	47.	C	48.	C
49.	D	50.	D				

2. IDAZMENA

Ariketa: Hurrengo orrian gai bat daukazu berari buruzko zeure iritziak azal ditzazun. Gaiarekin batera, laguntza gisa, beraren inguruko informazioa ematen dizugu batetik, eta bestetik, gaia garatzeko erabil dezakezun zenbait puntu.

Oharrak: Kontuan hartu idazlana egin behar duzula, hau da, ez duela balio gauzak eskematikoki aipatzeak; alderantziz, esaten direnak azaldu egin behar dira, **konposizioa** egin behar da. Bestalde, lagungarri gisa ematen diren informazioko esaldiak beste barik kopiatzeak ere ez du balio.

Idazlanak **gutxienez 350 hitz (50 bat lerro)** izan behar ditu; beraz, gutxieneko luzera eskatzen da.

Idazlana zuzendu eta baloratzeko orduan oso kontuan hartuko dira **gaiarekiko lotura, testuaren egituraketa egokia, erregistro egokia, testuaren barneko lotura, eta gramatika zuzentasuna.**

Gaia:

« GIZA-KLONAZIOA »

30 giza-enbrioi
klonatu ditu Hego
Koreako zientzilaria
talde batek.
Sendatzeko
helburuarekin egin
dutela diote.

Klonazioaren aldekoek
ikerketa honek
medikuntza alda
dezakeela uste dute,
etorkizunean neurria
egindako tratamenduak
egin ahal izango
direlako.

Europar, Erresuma Batua
da helburu
terapeutikoetarako
giza-enbrioiak klonatzea
onartzen duen estatu
bakarra.

**Helburu terapeutikoa
izan arren, klonazioa
ez dela etikoa diote
klonazioaren
aurkakoek.**

- Giza-klonazioaren auzia: aldeko eta aurkako arrazoiak.
- Giza-klonazioaren arriskuak.
- Gobernuen zeregina klonazioa arautzeko.
- Etika eta zientzia: bien arteko muga.

5

10

15

20

25

30

35

40

45

50

55

60

65

70

75